

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	IBILGAILUAREN ESEKIDURA-SISTEMAREN MANTENTZE-LANAK	Iraupena	60
		Baldintzatua	
Kodea	UF1171		
Lanbide-arloa	GARRAIOA ETA IBILGAILUEN MANTENTZE-LANAK		
Lanbide-eremua	Ibilgailuen elektromekanika		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Ibilgailu automobilen indarra transmititzeko sistemen eta errodaje-trenen mantentze-lanak	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Direkzio- eta esekidura-sistemak.	Iraupena	200
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Ibilgailuaren direkzio-sistemaren mantentze-lanak	Iraupena	80
	Ibilgailuaren gurpilen mantentze-lanak.		30
	Laneko eta ingurumeneko arriskuen prebentzioa ibilgailuen mantentze-lanetan (Zeharkakoa).		30

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0130_2: SISTEMA HIDRAULIKO ETA PNEUMATIKOEN, DIREKZIOAREN ETA ESEKIDURAREN MANTENTZE-LANAK EGITEA gaitasun-atalaren LB1 eta LB2 lanbide-burutzapenekin, esekidura-sistemari dagokionez, eta LB4 lanbide-burutzapenekin.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Ibilgailuaren esekidura-sistema osatzen duen mekanismo-multzoaren matxurak konpontzea, gidatzea segurua, pixkanakakoa eta leuna izatea lortzeko, ibilgailuko bidaiariaren segurtasun aktiboa eta pasiboa berma dadin, eta ibilgailuak zoruarekiko atxikidura eta egonkortasun maximoa izatea lortzeko.

EI1.1 Esekidura-mota desberdinak osatzen dituzten elementuak identifikatzea eta zerrendatzea, eta haietako bakoitzak banaka eta esekidura multzoaren barruan zer helburu eta funtzionamendu duten azaltzea.

EI1.2 Esekidurako elementu guztiak zer egoeratan dauden begiratzea, haien ainguraketak doitzea, eta egiaztatzea haien loturaren estutze-momentua fabrikatzaileak ezarritakoa dela.

- Fabrikatzailearen eskuliburua erabiltzea.

EI1.3 Esekidura-sistemako bihurtura-barrak doitzea, fabrikatzaileak adierazitako parametroei jarraituz.

- Fabrikatzailearen eskuliburua erabiltzea.

- Tresna eta tresneria espezifikoak erabiltzea.

EI1.4 Esekidura-sistemako esekidura-besoak, trapezioak, motelgailuak, baleztak eta "silent block"ak begiratzea, elementu horiek oso garrantzitsuak baitira segurtasunari dagokionez; egoera onean egon behar dute, ibilgailuaren lerrokadura optimoa izan dadin.

A2: Esekidura hidropneumatikoko sistemako elementuak identifikatzea, begiratzea eta konpontzea.

EI2.1 Esekidura hidropneumatikoaren sistemako elementuak eta haien funtzionamendua identifikatzea, eta matxurak diagnostikatzea.

EI2.2 Esekidura hidropneumatikoaren sistemako eskema hidraulikoak identifikatzea eta interpretatzea.

EI2.3 Esekidura hidropneumatikoaren funtzionamendu-presioak begiratzea, manometro eta tresneria egokiak erabilia.

EI2.4 Esekidura hidropneumatikoaren sistemako ihesak diagnostikatzea eta konpontzea, eta estankotasun egokia duela egiaztatzea.

EI2.5 Esekidura hidropneumatikoaren zirkuitua purgatzea, eta ondo funtzionatzen duela egiaztatzea, proba dinamiko bat eginez.

A3: Esekidura adimendunaren sistemako elementuak identifikatzea, begiratzea eta konpontzea.

EI3.1 Esekidura adimenduneko sistemako elementuak eta haien funtzionamendua identifikatzea, eta matxurak diagnostikatzea.

EI3.2 Matxurak diagnostikatzea eta elementu hondatuak konpontzea.

EI3.3 Esekidura adimendunak behar bezala funtzionatzen duela egiaztatzea, proba dinamiko bat eginez.

A4: Ibilgailu adimendun baten esekidura-sistemako elementuak identifikatzea, begiratzea eta konpontzea.

EI4.1 Balezten esekidura-sistemako osagaiak identifikatzea, egiaztatzea balaztaren puntua egoera onean dagoela eta ezin hobeto finkatuta dagoela, eta dagozkion U bridak begiratzea.

EI4.2 Balezta multzoko elementuen higadura identifikatzea, eta elementu horiek ordezkatzeko, behar izanez gero.

EI4.3 Ibilgailu industrial baten esekidura pneumatikoaren sistemako osagaiak identifikatzea, ondo funtzionatzen duen begiratzea, eta zirkuituan aire-ihesak ez dagoela egiaztatzea.

EI4.4 Sistema pneumatikoaren eskemak identifikatzea eta interpretatzea.

EI4.5 Behar diren konponketak egitea, ekintza hori egiten duten langileen segurtasuna kontuan izanik, eta konponketa kalitatezkoa den begiratzea.

Edukiak

1. Ibilgailuaren esekidura-sistema konbentzionalaren mantentze-lanak.

- Ibilgailuko esekiduraren eboluzioa.
- Funtzionamendu-printzipioa.
- Esekiduraren ezaugarriak.
- Esekidura-sistema osatzen duten elementuak.
 - Motelgailuak.
 - Malgukiak.
 - Baleztak.
 - Bihurdura-barrak.
 - Trapezioak.
 - Esekidura-besoak.
 - Elementu elastikoak.
 - Barra egonkortzaileak.
 - Barra egonkortzaileen tiranteak.
 - Esekidura-errotulak.

2. Esekidura hidropneumatikoaren sistemaren mantentze-lanak.

- Esekidura hidropneumatikoaren eboluzioa.
- Aplikazioak.
- Sistema osatzen duten elementuak.
- Funtzionamendu-printzipioa.
- Sistemaren oinarritzko eskemak eta zirkuituak.

3. Esekidura adimendunaren sistemaren mantentze-lanak.

- Esekidura adimendunaren eboluzioa.
- Sistema osatzen duten elementuak.
- Funtzionamendu-printzipioa.
- Sistemaren oinarritzko eskemak eta zirkuituak.

4. Ibilgailu industrialen esekidura-sistemaren mantentze-lanak.

- Ibilgailu industrialen esekidura-sistemen eboluzioa.
- Sistema osatzen duten elementuak.
- Ibilgailu industrial motaren eta aplikazioaren arabera bariazioak.
- Funtzionamendua.
- Sistemaren oinarritzko eskemak eta zirkuituak.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta lanbide-eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestakuntza-atal hau egiteko gainditua izan behar du UF1170: Ibilgailuaren direkzio-sistemaren mantentzen-lanak.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Ibilgailu automobilien indarra transmititzeko sistemen eta errodate-trenen mantentze-lanak